

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2014/15

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25936 - Gizarte Ikerketarako Metodologia Kualitatiboa

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

'Gizarte Ikerketarako Metodologia Kualitatiboa' 3. mailan kokatuta dagoen derrigorrezko ikasgai bat da.

Gizarte ikerketak egiteko jarrai daitekeen metodologietako bat da orientazio kualitatiboa duena, eta bere oinarrietan eta bitartekoetan janztea da ikasgai honen helbura. Pertsonarteko dinamiketan eta ingurune sozialetan erantsita doazen esanahiek ekintzarako oinarriak ezartzen dituztela abiapuntutzat hartuta, horiek arakatzearen garrantziaz eta bidez jardungo gara ikasgai honetan.

Ikasgai honekin harreman sendoa dute: Komunitate Gizarte Langintza, Gizarte Ikerketarako Metodologia Kuantitatiboa eta Gradu Bukaerako Lanak.

Gizarte Langintza Graduaren gaitasun orokor hauek ikasgai honek berekiak ditu ere:

-- Praktika profesionalerako ezagutza baliagarriak eskuratzeko asmoz ikerketak gauzatzeko oinarrizko gaitasunak izatea.

-- Gai izatea enfoke kualitatiboarekin edota partehartzailearekin bideratzeko azterlan baten egokitasuna argudiatzeko eta azterlanaren behin-behineko diseinua egiteko.

Ikasgaiaren konpetentzia espezifikoak

- Ezagutzea zeintzuk diren ikerketarako metodoez oinarrizko kontzeptuak eta batzuen eta besteen arteko aldeak.
- Edozein fenomeno sozialen azterlana egiteko jarraitu beharreko prozesura eta teknika ezberdinak ezagutzea.
- Pertsona, talde eta komunitateen ikusmoldeen eta diskurtsoen azterlanak egiteko mesedegarrien diren bitarteko teorikoak eta praktikoak ezagutzea, bakoitza aplikatzerakoan eginbeharren aurrean antolatzen eta planifikatzeko gaitasuna agertuz
- Gizarte ikerketarako erabilitako tekniken arabera bere emaitzak interpretatzen jakitea, horretarako.

Labur esanda, ikasgai honen helburuak da: gizarte ikerketarako metodologia kualitatiboaren berezkotasunak ezagutzea, teknika baliagarrien ezaugarriak argitzea, eta unean unean dagokion informazio biltzeko teknika egokiena dena erabiliz, informazio esanguratsua eskuratzeko, aztertze, sintetizatze eta idatziz zuzen azaltzeko gaitzea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. gaia: Gizarte Zientzietako ikerketaren oinarri kontzeptualak eta errealitatera hurbiltzeko bideak. Ikerketa-ekintza.
2. gaia: Ikerketa kuantitatiboaren eta kualitatiboaren &#8220;dilema&#8221;. Ikerketarako zenbait teknika nagusi.
3. gaia: Dokumentazio teknikak.
4. gaia: Narrazio teknikak: elkarrizketa pertsonalak, talde elkarrizketak eta eztabaida taldeak.
5. gaia: Behaketa teknikak: motak eta prozedura.
6. gaia: Interpretazio teknikak, eduki analisia eta emaitzen txostenak.
7. gaia: Ikerketa ekintza partehartzailea: teknika partehartzaileak gizarte ikerketan.

**METODOLOGIA**

→ Ikasgaiaren zenbait eduki Arazoetan Oinarritutako Metodologia jarraituz landuko da. Horrez gain, gaitegiko 7. gaia -Teknika partehartzaileak- Ikaskuntza Zerbitzua Metodologiaren bidetik jorratuko da.

→ Garrantzitsua da oso ikasgai honek Moodle plataforman duen gunea errebisatzea astero, bertan jarriko baitira beharrezko materialak, testu osagarriak eta oharrak. Ohar horietako batzuk gida dozentek honetan zehazteke gelditzen diren gai buruzko ARGIBIDEAK izango direnez, Moodleko ikastaro berekia maiz kontsultatzea oso garrantzitsua da. Horrez gain, gertaera edo arrazoi ezberdinengatik, eskolorduetan eta ebaluatzen lanetan aldaketak egingo balira, Moodleko ikastaroan argitaratuko direlako eta horien arabera egingo delako ebaluazioa.

Irakasleak bertan jartzen dituen oharrak eta abisuak ikasleak jaso ditzan, ikaslearen ardura da EHUko HELBIDE ELEKTRONIKOA aktibatuta izatea, edo beste e-helbide batera bideratua.

### IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45				15				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5				22,5				

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

### EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

### KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

### OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgaiaren gaiet buruzko azalpenak emango ditu irakasleak gelan, eta gelan (saio teorikoetan zein praktikoetan) taldeka ere landuko dira kuestio teoriko zein praktikoak (sarritan ebaluagarriak diren lanak prestatzekoak).

Ikasgaiaren edukiak landu eta ebaluatuak izateko bi bide izango dira aukeran: A bidea eta B bidea.

→ A ebaluazio bidea:

Eskolorduetara (teorikoak zein praktikoak) %80ko gutxieneko asistentzia maila da A bidea jarraitzeko baldintza.

Ikaslearen ardura da eskolorduetara bere etorrera-maila zenbatekoa den neurtzea.

- Bakarkako lana eta taldeko lanak izango dira ebaluagai. Bakarkako lanak azken notarekiko %20 balioko du eta talde lanek %40.

- Lanez gain, azterketa idatzia garatzeko galderekin izango da gaintitu beharreko frogak, eta azken notarako %40 balioko du. Gutxienez gaitegiko 1., 2. eta 6. gaiak izango dira azterketa bidez ebaluagai, eta lauhilekoa aurrera joan ahala zehaztuko da zein beste gai izango den era horretan aztertua.

Ikaslearen ardura da eskolorduetan ematen diren azalpenen apunteak hartzea.

→ B ebaluazio bidea:

Eskolordu teoriko zein praktikoen %80ra ez doazenentzat.

- Bakarkako lana (notaren %30) Moodleko ikastaroan ezarritako baldintzetan gaiari, baliatzeko teknikari eta epeari dagokionez.

Azterketa (%70), gaitegi osoari buruzkoa, programaren bibliografia eta Moodleko materialak (baleude) erabiliz.

Lehen deialdian gaintitu ezean, bigarren deialdirako gordeko dira gaintituta dauden lanen (edo azterketaren) nota, baina ez hurrengo ikasturtean.

Indarrean dagoen ikasturtean emandako azalpenak eta materialak dira aztergai izango direnak azterketan.

### EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodlen jarriko dira beharrezko materialak, testu osagarriak eta egitekoei buruzko argibideak.

E-posta bidezko ikasleen mezuak tutoretzarako ordu tartetan erantzuten saiatuko da irakasleak.

### BIBLIOGRAFIA

#### Oinarrizko bibliografia

Bergua, José Ángel (2011): Estilos de investigación social: técnicas, epistemología, algo de anarquía y alguna pizca de sociología. Zaragoza. Prensas Universitarias de Zaragoza.

Colás, Pilar eta Buendía, Leonor (1995): Hezkuntzaren ikerkuntza. Bilbao. EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua.

Corbetta, Piergiorgio. (2007): Metodología y técnicas de investigación social. Madrid. McGraw-Hill.

De Gialdino Vasilachis, Irene. (coord.) (2006): Estrategias de investigación cualitativa. Barcelona. Gedisa.

- Del Val, Consuelo (2005): Prácticas para la comprensión de la realidad social. Madrid. UNED.
- Espadas, M<sup>a</sup> Angeles. (1997): &#8220;La investigación en la formación del Trabajador social: perspectivas metodológicas&#8221;, Revista Servicios Sociales y Política Social.
- Iñiguez, Lupiciano. (ed.) (2003): Análisis del discurso. Manual para las ciencias sociales. Barcelona. UOC.
- Ragin, C. (2007); La construcción de la investigación social. Introducción a los métodos y su diversidad. Caps.1, 2 y 3. Bogotá. Siglo del Hombre Editores/ Universidad de Los Andes/ Sage Publications.
- Rubio, M<sup>a</sup> José y Varas, Jesús. (1997): El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y técnicas de investigación. Madrid. CCS.
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio (2012) (5. edizioa): Metodología de la investigación cualitativa. Bilbao. Universidad de Deusto.
- Sanmartin, R. (2003): Observar, escuchar, comparar, escribir. La práctica de la investigación cualitativa. Barcelona. Ariel.
- Vallejos, Antonio et al. (2007): Métodos y técnicas de investigación social. Madrid. Ramón Areces

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- Alonso, L.E. (1995). Sujeto y discurso: el lugar de la entrevista abierta en las prácticas de la sociología cualitativa. En J.M. Delgado y J. Gutiérrez (Coords.), Métodos y Técnicas cualitativas de investigación en Ciencias Sociales (225-240). Madrid: Síntesis.
- Callejo, J. (2001). El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación. Barcelona: Ariel.
- Colás, P. (1992). El análisis de datos en la metodología cualitativa. Revista de Ciencia de la educación, 152, pp. 521-539.
- Gil Flores, J. y Perera Rodríguez, V (2001). Análisis informatizado de datos cualitativos. Sevilla: Kronos
- Hammersley, M. y Atkinson, P. (1994). Etnografía. Métodos de investigación. Barcelona: Paidós.
- Lorenzo, A., Martínez Piñeiro, A.B. y Martínez Piñeiro, E. (2004). Fuentes de información en investigación socioeducativa. 10, n. 2. Revista ELección de Investigación y EValuación Educativa, v. [http://www.uv.es/RELIEVE/v10n2/RELIEVEv10n2\\_6.htm](http://www.uv.es/RELIEVE/v10n2/RELIEVEv10n2_6.htm)
- Marinas, J.M. y Santamarina, C. (Eds.) (1993). La historia oral: métodos y experiencias. Madrid: Debate
- Martín Criado, E. (1997). El grupo de discusión como situación social. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 79, pp. 81-112.
- Pujadas, J.J. (1992). El método biográfico: el uso de las historias de vida en ciencias sociales. Madrid: CIS.
- Sarabia, B. (1985). Historias de vida. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 29, pp. 165-186.
- Valles, M.S. (2002). Entrevistas cualitativas. Madrid: CIS.

### **Aldizkariak**

Sakontzeko bibliografiaren erreferentzietan ageri direnak

Reis: Revista española de investigaciones sociológicas

Portularia: Revista de Trabajo Social

Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud.

### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://la-investigacion-cualitativa.blogspot.com.es/>

## **OHARRAK**